

I. ERANSKINA

UNIBERTSITATE SPIN-OFFak SORTZEKO ARAUDIA EGITEARI BURUZKO KONTSULTA PUBLIKOA

39/2015 Legearen (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 133.1 artikulua arabera: *"Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek."*

UPV/EHUK asmoa du goiburuan aipatutako araua onartzeko, eta dokumentu honen helburua da hori jakinaraztea nola unibertsitateko kideei hala arau horren eraginpean egon daitezkeen erakundeei, batzuek nahiz besteek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Aurkibidea

1	Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.....	2
1.1	Spin-offak sortzearen inpaktua	2
1.2	Lege aurrekariak	3
1.3	Egungo egoera UPV/EHUn	5
2	Araua onartzeko beharra eta egokitasuna	6
2.1	Unibertsitate publikoetan spin-offak sortzeko ohiko jardunbideak	6
2.1.1	Ohiko jardunbideei buruzko txostena (CRUE, 2021)	6
2.1.2	G9 taldeko unibertsitateen egoera	10
2.1.3	Beste unibertsitate batzuk	12
3	Arauaren helburuak	13
4	Irtenbide alternatibo arautzaileak eta ez-arautzaileak	14

1 Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

UPV/EHUK, 2022/2025 Plan Estrategikoan, "Ikerketa eta transferentzia" ardatz estrategikoaren barruan, 06. helburu gisa ezarrita dauka ekintzailtza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea. Horretarako tresnetako bat da unibertsitate spin-offak sortzea.

Unibertsitate spin-offak dira unibertsitateko ikertaldeek emaitzak ustiatzeko sortutako enpresak. Hau da, spin-offak ez dira edozein motatako enpresa berriak, **unibertsitateko ikertzaileek sortutako ezagutza eta teknologiak transferitzea helburu duten enpresak baizik.**

Beraz, spin-offak mesedegarriak dira ikertzaileentzat, ikasleentzat eta gizarte osoarentzat, jarraian ikusiko den bezala.

1.1 Spin-offak sortzearen inpaktua

Onurak ikertzaileentzat:

- Ikerkuntzaren aplikazio praktikoa: spin-offek aukera ematen die ikertzaileei beren aurkikuntzak produktu, zerbitzu edo teknologia aplikagarri bihurtzeko, eta ikertzaileen oihartzuna eta ospe profesionala hobetzen laguntzen du horrek.
- Aitortza eta ikusgarritasuna: ikertzaileek sortutako jakintza zientifikoa transferigarri eta interesgarri egiten dute gizarte osoarentzat. Ondorioz, ikertzaileen inpaktu soziala handitzen da, eta agente ekonomikoen eta sozialen aitortza jasotzen dute.
- Finantza pizgarriak: ikertzaileek diru sarrerak lor ditzakete jabetza intelektualaren eta industrialaren bidez, edo enpresetako partaidetzen bitartez, eta finantza iturri gehigarri bat da hori, maila pertsonalean nahiz profesionalean.

Onurak unibertsitate ikasleentzat:

- Prestakuntza praktikorako aukerak: spin-offek aukera ematen diete ikasleei proiektu errealean aritzeko, doktorego tesi industrialak egiteko, master eta gradu amaierako lanak egiteko, eta erakunde hauetan praktikak egiteko. Horri esker, ikasgelan ikasitakoa aplikatu dezakete, eta beren trebetasun praktikoa bizitzan errealean hobetu.
- Enplegarritasuna: ikasleek zuzenean lan egin dezakete spin-off batean, eta lan esperientzia bikaina da hori, etorkizuneko enplegu espektatibak hobetzeko modu egoki.
- Sormena eta ekintzailtza bultzatzea: unibertsitate spin-offak inspirazio iturri dira ikasleentzat, eta ekintzailtzaren bidetik enpresa berriak sortzeko beren gaitasunean araka dezakete horri esker.

Onurak gizartearentzat:

- Berrikuntza eta inpaktu ekonomikoa: spin-offen bidez, jakintza akademikoa modu zuzenagoan eta eraginkorragoan transferitzen da merkatura. Spin-offek produktu eta zerbitzu berriak garatzen dituzte, eta pertsonen bizi kalitatea hobetzen eta sektore ekonomiko berriak sortzen laguntzen du horrek. Toki edo eskualde mailako ekonomia garatzen laguntzen dute, eta enpleguak sortu eta lehiakortasuna areagotu.

- Irtenbideak gizarte arazoentzat: spin-offek sortutako produktu eta zerbitzuek laguntzen dute gure inguruko gizarte eta ingurumen arazoei eta desfizioei aurre egiten, eta gizartearen bizi kalitatea hobetzen du horrek.

Onurak unibertsitatearentzat:

- Ospea eta prestigioa: spin-offen arrakastak unibertsitatearen ospea handitzen du, agerian uzten duelako produktu eta zerbitzu berriak sortzeko gai den erakunde bat dela, bereziki produktu eta zerbitzu horiek balioa sortzen dutenean eta interesgarriak direnean merkatuarentzat eta gizarte osoarentzat. Horrek talentua erakartzen du unibertsitatera (ikertzaileak, ikasleak, etab.), eta erakundearen ikusgarritasun globala handitzen da.
- Diru sarrerak: diru sarrerak handitu daitezke unibertsitatearentzat, teknologia lizentzien salmentaren, enpresa jabetzaren partaidetzen edo lankidetzak akordio bidez. Horri esker, ikertzaile eta proiektu kopurua handitzen da unibertsitatean.
- Unibertsitatea-enpresa lotura estutzea: spin-offek laguntzen dute errealitate akademikoaren eta sektore pribatuaren arteko loturak sendotzen, eta mesedegarria da hori ikerkuntza aplikatuan kolaboratzeko, kanpoko finantzaketa lortzeko eta arazo errealetarako irtenbideak bilatzeko.

1.2 Lege aurrekariak

Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoak, 11. artikuluan dio: *"El personal comprendido en su ámbito de aplicación no podrá ejercer, por sí o mediante sustitución, actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sean por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares que se relacionen directamente con las que desarrolle el Departamento, Organismo o Entidad donde estuviera destinado."*

→ Hau da, bateraezinak dira eta ezin dira egin erakunde publikoarentzat eginiko jarduerekin lotura zuzena duten jarduerak pribatuak.

Gainera, Lege beraren 12. artikulua bateraezintasunak zehazten ditu:

"1.a) El desempeño de actividades privadas, incluidas las de carácter profesional, sea por cuenta propia o bajo la dependencia o al servicio de Entidades o particulares, en los asuntos en que esté interviniendo, haya intervenido en los dos últimos años o tenga que intervenir por razón del puesto público"

1.b) La pertenencia a Consejos de Administración u órganos rectores de Empresas o Entidades privadas, siempre que la actividad de las mismas esté directamente relacionada con las que gestione el Departamento, Organismo o Entidad en que preste sus servicios el personal afectado.

1.d) La participación superior al 10 por 100 en el capital de las Empresas o Sociedades a que se refiere el párrafo anterior."

Halere, **LOSUK** (Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 27/2023 Lege Organikoa) aipatzen ditu bateraezintasunen zati bat kentzeko eman behar diren baldintzak.

Zehazki, **61. artikuluan** dio:

*"1. Las universidades podrán **crear o participar** en entidades o empresas basadas en el conocimiento desarrolladas a partir de patentes o de resultados generados por la investigación financiados total o parcialmente con fondos públicos y realizados en universidades".*

(...)

*"4. Las limitaciones establecidas en el artículo cuarto, en su caso, **y en los artículos doce.1.b) y d)** y dieciséis **de la Ley 53/1984**, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, **no serán de aplicación** a los profesores/as funcionarios/as de los cuerpos docentes universitarios, al profesorado laboral permanente y al personal técnico, de gestión y de administración y servicios funcionario y laboral **cuando participen en las entidades o empresas basadas en el conocimiento previstas en este artículo**, siempre que exista **un acuerdo explícito del Consejo de Gobierno** de la universidad y se autorice por la Administración Pública competente."*

→ Horren arabera, unibertsitate irakasleek kapital sozialaren % 10 baino gehiago izan dezakete unibertsitateak sortutako edo partaidetutako enpresetan, eta enpresaren zuzendaritza organoetako kide izan daitezke, **Gobernu Kontseiluaren** onespenezkin beti.

53/1984 Legearen 12. artikuluan 1) letrako bateraezintasunari dagokionez (spin-off batean aritzeko), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 17/2022 Legearen 18. artikulua interes orokorreko jardueratzat hartzen du ikertzaileek parte hartzea unibertsitateak sortutako edo partaidetutako merkataritza sozietateetan, eta bateraezintasun hori kentzeko baldintzak aipatzen ditu.

18. artikulua berean irakur daitekeenez: "(...) las universidades públicas, el Ministerio de Hacienda y Función Pública en el caso de los Organismos Públicos de Investigación de la Administración General del Estado, (...), podrán autorizar al personal de investigación **la prestación de servicios** mediante un contrato laboral a tiempo parcial en sociedades mercantiles y otras entidades con personalidad jurídica creadas o participadas por la entidad para la que dicho personal preste servicios."

→ Horregatik, unibertsitate ikertzaileak lanaldi partzialean aritu daitezke unibertsitateak sortutako edo partaidetutako enpresetan, eta baimena ez du Gobernu Kontseiluak onartu behar. Gerentziak onartzen du.

Gainera, 18.2 artikulua dioenez: "Los reconocimientos de compatibilidad no podrán modificar la jornada ni el horario del puesto de trabajo inicial del interesado, y quedarán automáticamente sin efecto en caso de cambio de puesto en el sector público."

→ Spin-off batean aritzeko baimenak ez dakar berekin lanaldia aldatzeko baimena, eta eskaera hori egin behar da modu paralelo eta osagarrian. Baimena ez du Gobernu Kontseiluak onartu behar. Gerentziak onartzen du.

Zientziaren Legearen 17.4. artikulua aukera ematen du gehienez ere **5 urteko eszedentzia** emateko unibertsitatearekin lotura juridikoa duten enpresa pribatuetan aritzeko. Eszedentzia eskaeraren kasuan, enpresak **ez du zertan izan unibertsitateak sortu edo partaidetutakoa**.

→ Eszedentzia eman daiteke unibertsitateak sortu edo partaidetu gabeko enpresetan aritzeko, eta baimena ez du Gobernu Kontseiluak onartu behar. Gerentziak onartzen du.

1.3 Egungo egoera UPV/EHUn

Spin-offak sortzea sustatu eta errazteko, unibertsitateak ekintzailatza programa bat du campus bakoitzean: Inizia, Etreprenari eta Zitek. Programa horiek lagundu, aholku eman, prestakuntza eskaini eta kokapen fisiko bat ematen diete ikertzaileei, enpresak sortzeko.

UPV/EHUK ez du inolako partaidetzarik spin-offen kapital sozilean. Horrek funtsezko ondorio batzuk ditu spin-offen bideragarritasunean eta unibertsitatearen inpaktu sozial eta itzulkin ekonomikoan. Izan ere, sektore publikoaren bateraezintasunaren legea dela-eta, unibertsitateak spin-offen kapital sozilean parte hartzen ez duenez, unibertsitateko langileek:

- Ezin dute zerbitzurik eman spin-offetan.
- Kapital sozialaren % 10 izan dezakete gehien jota.
- Ezin dira egon spin-offen gobernu organoetan (administrazio kontseilua).

Ondorioak spin-offen bideragarritasunerako:

Ondorioetako bat da spin-offa sortzen lan egin duten ikertzaileek ezin dutela hari eragiten dion erabakirik hartu, ezin direlako izan enpresaren administrazio kontseiluko edo zuzendaritza organoetako kide. Gainera, enpresaren kapitalaren % 10ean bakarrik parte har dezakete, 53/1984 Legearen arabera.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da azpimarratzea funtsezkoa dela unibertsitate ikertzaileen inplikazioa enpresen lehen urteetan, urte kritikoak baitira egitasmoaren bideragarritasunerako. Pertsona horiek erabakirik ezin hartzea eta kapital sozialaren % 10 baino gehiago ezin edukitzea galga dira enpresa berri bat sortzeko desafioari aurre egitean.

Bestetik, spin-offek kanpo finantzaketa behar dute bizirik iraun eta hazteko. Jakina da inbertitzaileek zer baloratzen duten gehien proiektu batean inbertitu erabakitzean: hots, baloratzen ari diren proiektuan, teknologiaren gakoa duten sustatzaile ikertzaileek ehuneko handi batean inplikaturik egotea enpresan, eta erabakiak hartu ahal izatea. Talde sustatzailea oinarritzkoa da spin-offak arrakasta izan dezan, inbertitzaileari ematen dion konfiantzagatik, proiektuaren etorkizunari begira.

Ondorioak unibertsitatearen inpaktu sozialerako eta itzulkin ekonomikorako:

Unibertsitateak spin-offekin dituen patente lizentziek diru sarrerak sortzen dituzte spin-offaren produktuak saltzea lortzen denean. Spin-offaren sektorearen arabera, urteak igaro daitezke diru sarrerak lortu arte, eta zaila da irautea horrela.

Askotan, hirugarren enpresek erosten dituzte merkatu proiektuorik handiena duten spin-offak, hazteko eta hedatzeko, eta patentearen balioaren eragina txikitu egiten da produktu asko dituen enpresa handi baten barruan. Horrela, oso zaila da patentearen ustiapenaren segimendu zehatza egitea, eta unibertsitateak etekin gutxi ateratzen du spin-offaren arrakasta sozial eta ekonomikotik. Aldiz, kasu berean, unibertsitateak spin-offean parte hartuko balu, hirugarren batek erosteak kontrapartida gisa berekin ekarriko luke partaidetza horren balioa handitzea.

Bestetik, spin-offa sortu bada ere UPV/EHUn garatutako teknologiari esker, unibertsitatea ez da enpresaren bazkide eta ez du inolako loturarik harekin, eta ez dio inolako onurarik ateratzen spin-offaren sortzaile izatearen ospe eta inpaktu sozialari.

2 Araua onartzeko beharra eta egokitasuna

Unibertsitate publikoek tresna batzuk behar dituzte spin-offak transferitu eta sortzeko konpromisoa hartzeko, eta tresna horiek jasota daude Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 17/2022 Legearen 18. artikuluan eta LOSUren 61. artikuluan (Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 272023 Lege Organikoa).

Unibertsitate publiko gehienek tresna horiek eskuratu dituzte, CRUEren 2021eko txosten batek jaso bezala: **“Ikerlune publikoek spin-off/Oinarri Teknologikoko Enpresak sortzeko ohiko jardunbideei buruzko txostena”**.

2.1 Unibertsitate publikoetan spin-offak sortzeko ohiko jardunbideak

2.1.1 Ohiko jardunbideei buruzko txostena (CRUE, 2021)

CRUEk 2021ean argitaratutako “Ikerlune publikoek spin-off/OTEak sortzeko ohiko jardunbideei buruzko txostena” izeneko lanak biltzen ditu inkesta bidez jasotako 44 erakunderen emaitzak. Erakunde eta unibertsitate hauek parte hartu dute:

1. Ikerkuntza Zientifikoen Goi Kontseilua
2. UPV/EHU
3. Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutua
4. UNED
5. Madrilgo Unibertsitate Autonomia
6. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea
7. Avilako Unibertsitate Katolikoa
8. Murtziako San Antonio Unibertsitate Katolikoa
9. Alcalako Unibertsitatea
10. Almeriako Unibertsitatea
11. Burgosko Unibertsitatea
12. Cadizeko Unibertsitatea
13. Kantabriako Unibertsitatea
14. Gaztela-Mantxako Unibertsitatea
15. Extremadurako Unibertsitatea
16. Huelvako Unibertsitatea
17. La Lagunako Unibertsitatea
18. Errioxako Unibertsitatea
19. Leongo Unibertsitatea
20. Malagako Unibertsitatea

21. Murtziako Unibertsitatea
22. Zaragozako Unibertsitatea
23. Madrilgo Unibertsitate Europarra
24. Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatea
25. Cartagenako Unibertsitate Politeknikoa
26. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
27. Salamancako Pontifize Unibertsitatea
28. Universidade da Coruña
29. Universidade de Santiago de Compostela
30. Universidade de Vigo
31. Universitat Autònoma de Barcelona
32. Universitat d'Alacant
33. Universitat de Barcelona
34. Universitat de Girona
35. Universitat de les Illes Balears
36. Universitat de Lleida
37. Universitat de València
38. Universitat Jaume I
39. Universitat Oberta de Catalunya
40. Universitat Politècnica de Catalunya
41. Universitat Politècnica de València
42. Universitat Pompeu Fabra
43. Universitat Ramon Llull
44. Universitat Rovira i Virgili

Hona hemen txostenaren puntu interesgarrienak:

5. ¿Tu institución participa en el capital social de las spin-off/EBTs?

44 respuestas (RU)



Inkestatutako erakundeen ehuneko txiki batek, **zehazki % 14k (44 unibertsitateetatik 6k)**, adierazten du **ez duela inoiz parte hartzen** spin-off/OTeen kapital sozialean; % 41ek, parte hartu ohi duela. Gainerako % 45ek zabalik uzten du parte hartzeko aukera, kasuaren arabera.

Unibertsitate batzuen arabera, ia beti parte hartzen badute ere spin-off/OTeen kapital sozialean, ez dute baztertzen ez egitea baldin eta erakundearekin lan lotura duten ikertzaileek kapital sozialaren % 10 baino gutxiago badute. Era berean, beste unibertsitate batzuek soil-soilik parte hartzen dute sustatzaileek erakundearen partaidetza eskatzen duten enpresetan, eta horrek berekin dakar zuzenean, LOMLOUren 24. Xedapen Gehigarriaren arabera, sustatzaileei jarritako mugak kentzea, enpresaren kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza izateari eta Administrazio Kontseiluko edo Zuzendaritza Organoko kide izateari dagokienez (Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 12. artikuluan ezarritako mugak).

Ohiko jokabide horrek agerian uzten du erakundeek enpresen kapital sozialean duten partaidetzak zerikusi handiagoa duela bateraezintasunen legeak ezarritako bateraezintasunak kentzearekin, erakundeen interes edo erabaki estrategikoekin baino.


Beste kasu askotan, unibertsitateen erantzunek erakusten dute parte-hartzea ez dela sistemikoa. Batzuetan parte hartzen da ikerketaren ikuspegitik adierazgarriak edo enblematikoak diren egitasmoetan, instituzio mailan balioa eransten duten ekimenetan, ez ikertzaileen edo inbertitzailearen beharrengatik. Beste unibertsitate batzuek diote orain arte beti parte hartu dutela spin-off/OTeen kapital sozialean, baina protokolo bidez aurreikusten dutela enpresa bat spin-offtzat hartzea erakundearen parte hartzerik gabe, edo zabalik uzten dutela kapital sozialean parte hartzeko edo ez parte hartzeko erabakia, enpresaren bideragarritasunaren arabera.

Unibertsitateren batek dio spin-off/OTeen kapital sozialean parte hartzen duela baldin eta interesa badu bai bazkide fundatzaileentzat bai unibertsitatearentzat, edo, bazkide fundatzaileek eskatuta, proiektuak unibertsitateari dakarzkionean aukera komertziala, negozio potentziala eta talde sustatzailearen konpromisoa, eta politika instituzionalarekin koherentea bada.

Beste erakunde batzuek adierazten dute inoiz ez dutela edo oso gutxitan parte hartu dutela spin-off/OTE batean, gobernu organoak hala erabakita, eta ez dutela epe labur/ertainera barne prozedurak aldatzeko asmorik.

6. En el caso de que tu institución participe, ¿con qué porcentaje del capital social suele participar?


36 respuestas (RM)



Unibertsitate gehienek (% 53) % 5-10eko ehunekoarekin parte hartzen dute enpresaren kapital sozialean; % 33k, % 5eko edo hortik beherako ehunekoarekin.

12. En el caso de que tu institución participe en el capital social, ¿con qué porcentaje participa el personal de tu institución?


35 respuestas (RU)



Unibertsitate gehienek (% 80) diote beren sustatzaileek erakundeak partaidetutako spin-off/OTEn kapital sozialean parte hartzen dutela, nahi duten ehunekoaz, mugarik gabe.

11. ¿Existen spin-off/EBTs en tu institución que se constituyan sin cumplir el procedimiento normativo?

43 respuestas (RU)



Gehienek (% 81) diote ere beren erakundeetan sortutako enpresa egitasmoek bete egiten dutela dagokion araudia. Gainerako erakundeei dagokienez, egitasmo bakan batzuek ez dute araudia betetzen (% 16), edo betetzen ez dituztenak betetzen dituztenak baino askoz ohikoagoak dira (% 2).

CRUEren txostenaren emaitza nagusien LABURPENA:

- ✓ Unibertsitateen % 41ek beti parte hartzen dute spin-off/OTEn kapital sozialean; % 45ek, kasu batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Soilik % 14ek ez dute inoiz parte hartzen.
- ✓ Unibertsitateen % 53k % 5-10 artean parte hartzen dute kapital sozialean.
- ✓ Unibertsitateen % 80k enpresan nahi duten ehunekoaz parte hartzen uzten diete beren sustatzaileei, mugarik gabe.
- ✓ Unibertsitateen % 81ek bete egiten dute araudia spin-offetan parte hartzean.

2.1.2 G9 taldeko unibertsitateen egoera

2025eko martxoan, spin-offetan parte hartzen duten galdetu zitzaien G9 taldeko unibertsitateei. 8 unibertsitateetatik 6k erantzun zuten (alde batera utzirik UPV/EHU).

Zehazki, galdetu zitzaien ea parte hartzen duten beren spin-offen kapital sozialean eta, erantzuna baiezkoa izanez gero, unibertsitate gisa zuzenean egiten duten edo bitarteko entitate bat erabiliz (unibertsitateak % 100en partaidetutako entitate independenteak erabili ohi dira).

Hona hemen erantzunak, hitzez hitz:

Murtziako Unibertsitatearen erantzuna:

"En la Universidad de Murcia hasta ahora nos hemos incorporado al capital siempre con participación no dineraria y con un mínimo del 5%. A partir de ahora la aportación va a ser dineraria y el mínimo va a estar en el 10%."

Oviedoko Unibertsitatearen erantzuna:

"En la Universidad de Oviedo estamos a muy poco ya de que se apruebe nuestro reglamento. En él, con relación a lo que preguntas se contempla:

- *La participación de la Universidad en el capital social estará sujeta a un límite máximo de 10.000 euros y no podrá superar el 10 % del capital social, salvo autorización expresa del Consejo Social a propuesta motivada del Consejo de Gobierno.*
- *La aportación de la UO para la asunción de su correspondiente participación en el capital social de la EBC podrá consistir en:*
- *Aportaciones dinerarias, que podrán corresponder a asignaciones presupuestarias propias o de alguno de sus medios propios.*
- *Aportaciones no dinerarias, a través de bienes, servicios o de resultados de investigación de la UO aportados a la EBC, los cuales deberán ser adecuadamente identificados y valorados y que podrán estar sujetos a condiciones y acuerdos de transmisión con los límites que establezca la legislación pertinente.*

Como ves, en la propuesta de reglamento se considera la posibilidad de hacerlo vía nuestra fundación. En la práctica, empezamos a participar hace muy poco (el año pasado), y en los casos que hemos tenido la participación ha sido directamente desde la UO."

Kantabriako Unibertsitatearen erantzuna:

"En la UC hasta la fecha no se participa en el capital social de las spin-off, aunque el Reglamento lo prevea también, bien desde la UC o a través de la Fundación u otra entidad que se cree. En todo caso, se está replanteando revisar el Reglamento para motivar la creación o participación de spin-off."

Errioxako Unibertsitatearen erantzuna:

"En la UR tenemos el reglamento en plena renovación, paralizado por "cosas" desde hace un tiempo. Entonces, nos vamos al vigente, que es de 2011 y en este se estima la participación de la UR de manera directa (sin entidades intermediarias) en todas las propuestas de spin-off, estableciendo distintos medios de participación, pero eso sí en un porcentaje mínimo del 5%.

Tenemos una spin-off constituida y en funcionamiento, y en ella la aportación de la UR ha sido dineraria."

Zaragozako Unibertsitatearen erantzuna:

"La Universidad de Zaragoza participa en sus spin-off a través de la entidad Unizar Emprende S.L.U. Es una sociedad holding o sociedad interpuesta, una SLU con CIF propio pero 100% Unizar.

- Sólo podemos participar mediante aportaciones dinerarias.

- En cuanto a porcentaje de participación por el momento participamos en 6 spin-off y siempre lo hemos hecho en un 5 %."

Gaztela-Mantxako Unibertsitatearen erantzuna:

"La UCLM tiene un mecanismo similar a Universidad de Zaragoza. Participamos con un máximo de 10 % del capital inicial a través de UCLMEmprende S.L.U. <https://www.uclm.es/empresas/emprende>

El % de la participación depende de las personas promotoras, pero, dado que el capital inicial suele ser de 10.000 € la universidad establece que un 10 % es suficiente para que los investigadores estén respaldados, pero puede ser menos si así lo deciden."

G9 taldearen erantzunen **LABURPENA:**

- ✓ Erantzun duten 6 unibertsitateetatik 5ek parte hartzen dute beren spin-offen kapital sozialean; seigarrenak (Katabriako Unibertsitatea) ez du parte hartzen, nahiz eta araudia aldatzeko asmoa duen, parte hartu ahal izateko.

Parte hartzeko moduari dagokionez:

- ✓ Zaragozako eta Gaztela-Mantxako unibertsitateek spin-offetan parte hartzen dute pertsona bakarreko sozietate mugatu (S.L.U) baten bidez, IFK propioarekin, baina % 100 unibertsitatearena izanik.
- ✓ Murtziako eta Errioxako unibertsitateek zuzenean unibertsitatearen bidez parte hartzen dute spin-offetan.
- ✓ Azkenik, Oviedoko Unibertsitateak zuzenean parte hartu du orain arte, baina aztertzen ari da hemendik aurrera bere fundazioaren bidez egitea.

2.1.3 Beste unibertsitate batzuk

Estatu osoko egoeraren erradiografia oso bat edukitzeko, transferentzian eta ekintzailertzan nagusi diren unibertsitateen araudiak aztertu dira.

Madrilgo Unibertsitate Politeknikoak honako hau dio bere [araudian](#): "La UPM podrá participar directamente en el capital social de las EBT tanto con porcentajes minoritarios como mayoritarios, o incluso con el total del capital social, en la medida en la que estas participaciones supongan el mejor cumplimiento de los fines de la UPM."

Universitat Politècnica de Valènciaren [araudian](#) honako hau irakur daiteke:

"Artículo 4. Aportaciones de la UPV a la EBC UPV Participada En caso de que se apruebe la participación de la UPV en una EBC UPV Participada, bien en la constitución, o con posterioridad (mediante compraventa o ampliación de capital), la Universitat podrá asumir, por sí o mediante entidad dependiente de la UPV, su porcentaje en el capital social, y, en caso de tratarse de aportaciones dinerarias, éstas podrán corresponder a asignaciones presupuestarias de la Universitat o de alguna de las entidades dependientes de la UPV[...]."

Universitat de Barcelonaren [araudiak](#) spin-offen kapital sozialean parte hartzeko aukera aurreikusten du.

Sevillako Unibertsitatearen [araudiak](#) spin-offen kapital sozialean parte hartzeko aukera aurreikusten du.

Madrilgo Complutense Unibertsitatearen [araudiak](#) spin-offen kapital sozialean parte hartzeko aukera aurreikusten du.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren [araudiak](#) spin-offen kapital sozialean parte hartzeko aukera aurreikusten du.

Beste unibertsitate batzuen araudien **LABURPENA:**

Hau da, unibertsitate guztiek aurreikusten dute beren spin-offen kapital sozialean parte hartzeko aukera, bai zuzenean bai baliabide propio baten bitartez, eta horretarako sortu eta onartu dute araudi xehe bat.

Unibertsitate publikoetan spin-offak sortzeko ohiko jardunbideen laburpena:

CRUEren txostenaren emaitzek eta beste unibertsitate publiko batzuen egoeraren barne ebaluazioak agerian utzi dute unibertsitate gehienek spin-offak sortzeko araudi propioa dutela, eta araudi horrek onartzen duela, kasu jakin batzuetan, unibertsitateak spin-offaren kapital sozialean parte hartzea, azken horren bideragarritasuna errazteko tresna gisa, bai eta ekintzailtza sustatzeko ere unibertsitateko kideen artean, UPV/EHU izanik horrelako araudirik ez duen unibertsitate bakarrenetarikoa.

3 Arauaren helburuak

Bi dira spin-offak sortzeko arauaren helburu orokorrak:

- ✓ Ekintzailtza sustatzea unibertsitateko kideen artean.
- ✓ Unibertsitate spin-offen bideragarritasuna erraztea eta denboran iraun eta hazi daitezen laguntzea.

Araudiaren helburu espezifikoak dira:

1. LOSUren 61. artikulua aplikazioa (Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 27/2023 Lege Organikoa), Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 12.1.b) eta d) artikuluan eta 16. artikuluan aipatutako bateraezintasuna kentzeko.

Zehazki, baimena ematea unibertsitateko kideei:

- % 10eko edo hortik gorako ehunekoa izateko unibertsitateak sortutako spin-offen kapital sozialean.
- Spin-offen administrazio kontseiluan parte hartzeko.

2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 17/2022 Legearen 18. artikulua aplikazioa, unibertsitateko kideei spin-offean zerbitzuak ematea baimentzeko.

Legearen 18.2 artikuluan irakur daitekeenez: *“Los reconocimientos de compatibilidad no podrán modificar la jornada ni el horario del puesto de trabajo inicial del interesado, y quedarán automáticamente sin efecto en caso de cambio de puesto en el sector público.”*

4 Irtenbide alternatibo arautzaileak eta ez-arautzaileak

Gaur egun ez dago spin-offak sortzeko araudi espezifikoaren alternatiba litzatekeen biderik, UPV/EHUK spin-offetan parte hartzeari dagokionez.

Ondorioz, unibertsitateko kideek eta arauaren eraginpean egon litezkeen elkarte edo erakundeek ekarpenak egin ahal izango dituzte —hala nola iradokizunak, iritziak etab. — 2026eko apirilaren 15erarte (egun hori barne). Ekarpenera egiteko, ezinbestekoa izango da nork bere burua akreditatzea, eta iproperty.otri@ehu.eus helbide elektronikora bidaliko dira.

Leioa, 2026ko martxoaren 25ean